

Espedientearen kodea: 2023ZZ020008

Espedientearen gaia: 2023an Xanisteban jaietan ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak.

Titularra: OIARTZUNGO UDALA

DEKRETUA

2022ko ekainaren 29an onartu zituen Udalbatzak “Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzeko Ordenantzak”, 2022ko irailaren 20an argitaratu zirenak GAOn.

Era berean, 2021eko azaroaren 27an onartu zuen Oiartzungo Udalbatza Osoak “Oiartzungo Udalaren 2022-2024 dirulaguntzen Plan Estrategikoa”.

Aipatutako dirulaguntzen Ordenantza eta 2022-2024 dirulaguntzen Plan Estrategikoa kontuan hartuta, onartu zituen Udalak “2023an Oiartzungo Xanistebanak jaietan kultur ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak banatzeko oinarriak” 2023ko martxoaren 29an.

Diru laguntza hauetan kontuan izan da 38/2003 diru laguntzak arautzen dituen Lege Orokorra, Oiartzungo Udal Ordenantza Orokorra, 2022-2024rako diru laguntzen Plan Estrategikoa, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako indarrean dagoen araudia.

Dirulaguntza hauen oinarrietan ezartzen den bezala, beren eskaerak aurkeztu dituzte Oiartzungo Xanistebanak jaietan kultur ekitaldiak antolatzen dituzten elkarteek epearen barruan.

Kultura Zerbitzuko arduradunak uztailaren 20an gai honi buruz luzatu duen txostena ikusirik, eta beronekin adostasunean, Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan honakoa

ERABAKI DUT

Lehena.- 2023an Oiartzungo Xanisteban jaietan ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak herriko elkarteetara banatzeko eta ordaintzeko dokumentu honetan txertatzen den proposamena onartzea.

Bigarrena.- Diru laguntza hauek ordaintzeko, guztira, 50.000 € euroko gastu-onarpena egin zenez, ordainketak Oiartzungo Udalaren 2023 urteko aurrekontuko 1 0801.481.338.00.10.2022 (A-830-2023) zenbakidun diru-atalaren kontura egitea.

Hirugarrena.- Oinarriek ezarri bezala, txostenean adierazitako lehen ordainketak orain egitea (%80ari dagokiona, hau da guztira 38.825,60 €) eta gainerakoa (% 20ari dagokiona, hau da, guztira 9.706,40 €) interesatuek gastuak justifikatu ondoren ordaintzea.

Laugarrena.- Interesatuei dagokien dirulaguntzaren justifikazio-agiriak (eskabide-orria eta IV, V, eta VI erans-kinak) gastuen justifikanteekin batera, irailak 1-30 bitarteko epean, udal erregistroan aurkeztu behar dituztela jakinaraztea. Orduan ordainduko zaie gainerako % 20a.

XANISTEBANAK DIRULAGUNTZAK LABURPENA			
	ESKATZAILEA, EKINTZA	PUNTUAK GUZTIRA	DIRULAGUNTZA
1	Artaso Elkartea: sokatira	70	2.662,00 €
2	Lartaun Abesbatza: kantu kantari	65	700,00 €
3	Haurtzaro Ikastola: haur parkea	67	3.278,00 €
4	Haurtzaro Ikastola: xakea	37	375,00 €
5	Haurtzaro Ikastola: disko festa (txoko jolasa)	55	500,00 €
6	Haurtzaro Ikastola: txokolatada	46	350,00 €
7	Haurtzaro Ikastola: zaharren egoitza	48	500,00 €
8	Martzelina Bertso Elkartea: bertso librean abuztuak 4	54	865,00 €
9	Martzelina Bertso Elkartea: bertso jaialdia abuztuak 5	59	1.627,00 €
10	Auzokalte: zezen txikiak	40	600,00 €
11	Auzokalte: danborradak	65	3.050,00 €
12	Elizaldekoak Guraso Elkartea: ipuin kontaketa, zirkoa, bazterrak txukuntzen, dantza emanaldia	80	2.520,00 €
13	OAFE elkartea: agerraldi feminista, bazkari feminista, bakarriketa	77	1.225,00 €
14	Eñaut Retegi (AIA Elkartea): gosaritzow eta ur puzgarriak	66	3.000,00 €
15	Ibargain Elkartea: sagardo lehiaketa	89	775,00 €
16	Girizia Pilota Elkartea: pala txapelketa	39	700,00 €
17	Haurtzaro Ikastola: disko roller festa	40	1.000,00 €
18	OTXE Elkartea: txirrindulari lasterketa	66	2.965,00 €
19	Iturri Berri Elkartea: herri kirolak	58	2.200,00 €
20	Aldeguna Elkartea: dantza txapelketa	64	2.270,00 €



OIARTZUNGO
UDALA

21	Haurtzaro Kirol Elkartea: erraldoien kalebueletak	54	3.360,00 €
22	Oiartzungo Idiyazaleak Elkartea: idi dema	55	2.700,00 €
23	Mindara Elkartea: pilota egokitua	32	360,00 €
24	Soinuenea: erromeriak, kalebueletak, dantza bilera	84	2.000,00 €
25	Biyurrienea: gazte eguna	120	3.800,00 €
26	Munanier Elkartea: DJ Bull eta La Fulana	47	800,00 €
27	Oiarpe: truk txapelketa	40	150,00 €
28	Oiarpe: haur esku-pilota txapelketa	72	2.200,00 €
29	Oiarpe: pilota jaialdia abuztuak 5	59	2.000,00 €
	PUNTUAK GUZTIRA	1748	48.532,00 €

Alkate udalburuak agintzen eta sinatzen du.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Joana Mendiboure

Alkatea

Elektronikoki sinatua



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU6d89ed76-a7ba-4614-a0f3-894b0c9251e8**

Dokumentu elektronikoko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023ZZ020008-Dekretua/Decreto (OIARTZUNGO UDALA)